



1. BALIO PROPOSAMENA:

Gure enpresak gizartean onura bat sortzen du, izan ere, gaur egun osasun mentalari garrantzia gehiago ematen zaio, eta osasun mentalerako laguntza behar duen jendearen kopurua handiago da (alegia, laguntza hori lortzea zaila egiten zaiona). Gainera estatuak emandako zerbitzuak arlo honetan nahikoak ez direla ikusi dugulako, eta laguntza hori eskaintzea pentsatu ostean, psikologo online enpresa bat sortu dugu. Beraz, gure enpresak eskaintzen duen balioa balio kualitatiboa da, zerbitzu bat eskaini eta gizartean eta gure bezeroengan behar eta nahi batzuk asetzen ditugulako, hauei onura bat sorraraziz.



Gainera hauek dira gure enpresak balioa gehitzeko eta lehiakideengatik ezberdintzeko dituen elementuak:

- Enpresa **berritzailea** gara, Durangaldean eta Bizkaia mailan ez dago antzeko zerbitzurik eskaintzen duen enpresarik.
- Eskaintzen ditugun zerbitzuak, bezero bakoitzaren nahi eta beharretara egokitzen dira; beraz, guztiz **pertsonalizatua** da gure zerbitzua eta beti bezeroari begira dagoena.
- **Lana errazten dugu**, online direlako gure zerbitzu guztiak. Hori dela eta, gure bezeroek beraien etxeko lasaitasun eta erosotasunetik landu ditzakete bere beharrak edo arazoak. Gainera, aplikazioa erabiltzea oso erraza da bezero guztientzako, oso intuitiboa baita.
- **Prezioari** dagokionez, gure enpresak eskaintzen dituen prezioak oso lehiakorak dira, psikologia zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak baino merkeagoak. Online enpresa bat izateak, prezio merkeagoak izaten laguntzen digu.
- Erabileraren erraztasuna da beste elementuetako bat, erabiltzaileak pausu txiki batzuk jarraitzearekin nahikoa izango du zerbitzua martxan jarri eta aurrera eramateko.

